

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

243/2020 Foru Agindua, maiatzaren 27koa, zeinaren bidez Covid-19aren ondorioz eteten baitira baldintzak betetzearekin nahiz pizgarri fiskalak edo zergadunari onuragarri zaizkion araubideak gozatzearekin edo kontsolidatzearekin lotutako epeak, edo antzeko beste batzuk.

Covid-19aren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri osagarriak ezartzen dituen maiatzaren 5eko 2/2020 Foru Dekretu-Arauak jasotakoaren arabera (berriki indarrean jarri da), salbuespenez eta puntualki luzatuta gelditzen dira zerga araudian ezarritako epe eta baldintza orokortuenak. Izan re, Covid-19arena bezalako ustekabeko egoera baten ondorioz baldintza horiek bete gabe gelditzea saihestu nahi baita.

Aipatutako foru dekretu-arauak erregulatutako aparteko luzapena duten epe eta baldintza horien artean, bereziki nabarmentzekoak dira, besteak beste, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan zergadunaren ohiko etxebizitzarekin lotutakoak eta sozietateen gaineko zergan aparteko mozkinen inbertsioari eta enplegu sorrerarekin lotutakoak.

Dena den, zerga araudiaren barruan sakabanatuta badira hain orokortuta ez dauden beste epe eta baldintza batzuk, hala nola aipatutako foru dekretu-arauan jasotakoak. Horregatik, normalean epe eta baldintza horiek zergadun gutxiagori eragingo diote, eta haiek betetzea oso zaila izan liteke alarma egoeraren deklarazioaren eta haren luzapenen indarraldiaren eta beronek dakartzan mugen ondorioz.

Egoera horri erantzuteko, maiatzaren 5eko 2/2020 Foru Dekretu Arauak azken xedapenetako lehenaren 4. apartatuan Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari baimena ematen dio foru agindu bidez luzatu edo eten ahal izan ditzan Gipuzkoako lurralde historikoko zerga araudian jasotako beste epe

batzuk, betiere Covid-19aren aparteko egoeraren ondorioz zergaduna ohiko egoeraren aldean kaltetuta ateratzen bada.

Ahalmen hori erabiliz, foru agindu honen xedea da izaera orokorrean etetea zerga bakoitzaren araudian jasota dauden eta baldintzak betetzearekin nahiz pizgarri fiskalak edo zergadunari onuragarri zaizkion araubideak gozatzearekin edo kontsolidatzearekin lotutako beste epeak, edo antzeko beste epe batzuk, betiere Covid-19aren ondorioz deklaraturako alarma egoerak sortutako mugek epe horiek betetzeari eragiten badiote.

Adibidez, foru agindu honetan jasotako etena epe hauei aplikatu ahal izango zaie:

— Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga: zergaren foru arauak 18.a).3 artikuluan jasotako bi hilabeteko epea, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako bazkideek borondatezko edo derrigorrezko bajaren ondorioz edo entitatearen desegite eta likidazioaren ondorioz jasotako kopuruen ekarpena borondatezko gizarte aurreikuspeneko beste entitate bati egiteko jarritakoa. Izan ere, horren bidez, jasotzen den diru hori zerga oinarrian sartzea saihestuko da.

— Sozietateen gaineko zerga: iraupen luzeko inbertsioa duten proiektuetan, zergaren foru arauak 67.4 artikuluan jasotako hilabeteko epea, kontratua formalizatzen denetik aurrera kontatua, inbertsioa ordainketak egiten diren neurrian eta haien zenbatekoan gauzatutzat hartzeko aukera Ogasun eta Finantza Departamentuari komunikatzeko jarritakoa.

— Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga: zergaren foru arauak 41.I.B.19 artikuluan jasotako urtebeteko epea, ibilgailua eskuratzen denetik aurrera kontatua, gero saltzeko erosten diren ibilgailu erabilien salerosketan jardun ohi diren enpresaburuek ibilgailuak eskuratzean salbuespenaren aplikazioa justifikatzeko jarritakoa.

Eta, neurriaren mugaketa errazteko, foru agindu honetan jasotako etena aplikatuko ez zaien epeetako batzuk zerrendatzen dira jarraian:

— Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga:

* Zergaren foru arauak 87.8 artikuluan jasotako hiru urteko bizitze epea, izaera orokorrean etxebizitza okupatua zergadunaren ohiko etxebizitzatzat hartzeko jarritakoa.

* Zergaren foru arauan 72.3 artikuluan jasotzen duen bost urteko epea, hain zuzen ere pentsio planei, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei, mutualitateei, enpresako gizarte aurreikuspeneko planei eta gainerako aurreikuspen sistemei egiten zaizkien eta ekarpena edo kontribuzioa egiten den

urtean zerga oinarrian murriztu ezin izan diren ekarpenak eta kontribuzioak murrizteko jarritakoa.

— Sozietateen gaineko zerga:

* Zergaren foru arauak 22.1.a) artikuluan jasotako sei hilabeteko epea, obligazioa amaitzen denetik aurrera kontatua, zordunen balizko kaudimengabezien ondorioz gertatzen diren kredituen narriaduragatik sortutako galerak kengarriak izateko jarritakoa.

* Zergaren foru arauak 14.1.a) artikuluan jasotako 90 egunetako kontaketa, zergadunak ondare-sozietatetzat jo daitezten.

— Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga: zergaren foru arauak 11. artikuluan jasotako epeak, «mortis causa» eskurapenetan herentziako ondasuna zehaztean ondasunen batuketa arautzeko atalase gisa jarritakoak.

Foru agindu honetan araututako epeen etenak ez die inola ere eragingo ez autolikidazioen edo beste zerga obligazio batzuen aurkezpenari, ez preskripzio eta iraungipen epeei eta ez honako xedapen hauetan jasota dauden epeei: aipatutako foru dekretu araua; martxoaren 24ko 1/2020 Foru Dekretu-Araua, Covid-19a gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri jakin batzuk onartzen dituen; eta apirilaren 1eko 136/2020 Foru Agindua, Covid-19aren ondorioz zergapeko jakin batzuentzat hiru hilabeteko autolikidazioak eta aitorpen ez-aldizkako, informatibo eta laburtzaileak aurkeztu eta ordaintzeko epea zabaltzen duena.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra.

Martxoaren 14tik eta irailaren 1era bitartean etentzat hartuko dira, eten hori zergadunarentzat kaltegarria ez denean, zerga bakoitzaren araudian jasota dauden eta baldintzak betetzearekin nahiz pizgarri fiskalak edo zergadunari onuragarri zaizkion araubideak gozatzearekin edo kontsolidatzearekin lotuta dauden epeak, edo antzeko beste epe batzuk, baldin eta ez badaude erregulatuta Covid-19aren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri osagarriak ezartzen dituen maiatzaren 5eko 2/2020 Foru Dekretu-Arauan eta Covid-19a gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri jakin batzuk onartzen dituen martxoaren 24ko 1/2020 Foru Dekretu-Arauan.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2020ko maiatzaren 27a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(2344)